



24 ORDUKO pH-METRIA ESOFAGIKOA

ZER DA PROBA HAU?

pH-metria esofagikoaren bidez, 24 orduz esofagoko azidoa neurtzen da ekipo eramangarri bat erabiliz (zunda eta gailua) anbulatorioan.

ZER EGIN BEHAR DUT PROBA EGIN AURRETIK?

- **Proba aurreko 7 egunetan EZ duzu** protoi-ponpa moduko inhibitzailerik hartu behar (omeprazol, lansoprazol, rabeprazol...), **ezta, aurreko 48 orduetan**, ranitidina motako farmakorik edo bestelako antiazidorik ere.
- **BARAURIK egon behar duzu** aurreko gaueetik, **gutxienez 8 orduz** (ezin duzu solidorik hartu, ez eta likidorik ere, ura barne).
- Proba goizez egingo dizute, **PROBA FUNTZIONALEN ATALEKO 7. SOLAIRUAN**. Eman bolantea idazkaritzan unitatera iristen zarenean.

PROBA NOLA EGINGO DIDATE?

- Zunda mehe eta malgu bat sartzen da sudurretik urdaileraino. Zunda behar bezala kokatuta dagoela egiaztatu ondoren, azterketa hasiko da. Gorputzak ondo jasaten du eta ez da anestesiarik behar.
- Azterketaz arduratuko diren erizaintzako arduradunek orri bat eta hori betetzeko jarraibideak emango dizkizute.
- Zure ohiko bizitzan egiten duzuna egiten jarraitu beharko duzu, eta ohiko bizitzan jaten duzuna jaten. Duzun lanaren arabera, baliteke egun horretan lanera joan ezin izatea.
- Hurrengo egunean, adierazitako orduan etorriko zara, erizaintzako pertsonalak zunda eta gailua ken diezazun.
- Azterketan zehar zunda ustekabeen ateraz gero, hurrengo egunean, unitate berean emango diguzu gailua.

PROBA EGIN ONDOREN

Kontuan izan zunda bat eta erregistragailu bat eramane behar duzula 24 orduetan zehar. Baliteke egun horretan zure lanera ezin joan izatea, ezta ariketa fisikorik eta gehiegizko esfortzurik ezin egin izatea.

Erregistroa analizatuko dute, eta emaitza eskatu zuen medikuari bidaliko zaio.

Harremanetarako telefono-zenbakiak:

Kontsultara joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu behar baduzu deitu 945 007500 telefono-zenbakira.